

ASFALTOAREN AZPIAN, EURIA

Piszifaktoria Ideien Laborategia

Babeslea:



Asfaltoaren azpian, euria

01

Kaleko ikuskizun ibiltari bat da. 45 minutu inguruko iraupena dauka eta hiri, herri edo auzo bakoitzaren hirigintza ezaugarrietara moldatzen da.

02

Murgiltze-esperientzia berritzaile bat eskaintzen dio publikoari, aldi berean ikuskizun berezi honen ikusle eta protagonista sentituko delako.

03

Piszifaktoria Ideien Laborategiaren 7. lana da eta Euskal Herriko kaleko arteen jaialdi nagusiek osatutako **Karrikan** elkartearen laguntza jaso du.

Ikusi trailerra

2023ko Bira

Emanaldi nabarmenetako batzuk:

Arrigorriagako Clown Jaialdia

Leioako Umore Azoka

Hendaiako Antzerkiaren Maiatza

Gasteizko Kaldearte jaialdia

Bilboko Kalealdia

Zarauzko Kalerki jaialdia

Antsoaingo Antzerki Jaialdia...

Zer dago gure hiriko asfaltoaren azpian?

2031. urtea da. Covidaren aldaera bortitz baten ondorioz, hamar urte eman ditugu etxean itxita, 2021ean konfinamendu zorrotz bat ezarri zenetik. Eta orain, beldurra da nagusi. Nola aldatu dira gure hiriak 10 urte hauetan? Norentzat dira orain espaloiak, errepideak, bankuak, farolak, jolaslekuak? Eta zer dago asfalto horren guztiaren azpian?

Kalera ateratzeko unea da berriro. Eta euria dator...



Bitartekaritza-ekintza

Ikuskizun hau bitartekaritza-ekintza batekin osatu daiteke. Ekintza hori hiriaren eta hiritarren arteko harremanak eta bizipenak aztertzen dituen ikerketa zientifiko-artistiko bat da. Hain zuzen ere, Euskal Herriko Unibertsitateko ikerlari batek gidatutako oinarri antropologikodun ikerketa bat da, ikuskizuna elikatzeke eta, aldi berean, publiko berria erakartzeko balio duena.

Fitxa artistikoa

Aktoreak

Irati Agirreazkuenaga
Mikel Ayllon
Igor Arzuaga

Gidoia eta zuzendaritza
Mikel Ayllon

Musika
Igor Arzuaga

Soinu edizioa
Thusia Koop.

Jantziak

Betitxe Saitua

Karakterizazioa
Maite Gutierrez

Atrezzoak
Atx Teatroa

Ekoizpena
Piszifaktoria

Dosierreko irudiak
Guillermo Ordás



Behar teknikoak

- Aldagela bat (argi-hartunearekin eta ispiluarekin) irteera-lekutik gertu.
- Bi laguntzaile.
- Ikusle kopuru mugatua: 60 pertsona.
- Ikuskizunak trafikorik gabeko plaza edo zabalgunek batean hasi behar du.
- Egunez zein gauez egin daiteke (ikusgarriagoa da gauez).
- Euria bada, ezin da egin.
- Ibilbidea antolatzaileekin adostuko da aurretik (ez da trafikoa moztu behar).
- Iraupena: 45 minutu.

Piszifaktoria Ideien Laborategia

Artearen diziplina desberdinetan aritzen diren hainbat artistak 2015ean Laudion sorturiko esperimentazio taldea da PISZIFAKTORIA. Hain zuzen ere, artearen adierazpide desberdinen arteko mugak ikertzea eta begiratzeko, esateko eta adierazteko modu berriak bilatzea dira laborategiaren helburuak.

Orain arte egindako lan nagusiak:

- *Takoidun zapata gorria*. Antzezlan. Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdia, 2017.
- *Maskararen azpiko karmina*. Fikziozko audiodida. Loraldia, 2021.
- *Daniella*. Websaila eta proiektu transmedia. EITB, 2021.
- *Noiz utziko dio euria egiteari*. Ibilaldi dramatikoa. Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdia, 2021.
- *Ivanka*. Antzezlan. Donostiako Poltsiko Jaialdia, 2022.
- *Hau ez da gerra bat*. Antzezlan. Gasteizko Printzipal Antzokia, 2023.





Kontratazioa

Piszifaktoria Ideien Laborategia

Mikel Ayllon

piszifaktoria@gmail.com

620605150

piszifaktoria.eus